



ELGOIBARREN HERRI ALDIZKARI BAT
SORTZEKO PROIEKTUA.

ELGOIBARREN HERRI ALDIZKARI BAT
SORTZEKO PROIEKTUA.

AURKIBIDEA.

1. SARRERA

1.1. PRENTSA LOKALA EUSKAL HERRIAN

1.2. ELGOIBARKO EGOERA

2. ALDIZKARIAREN BEHARRA

3. ALDIZKARIAREN EZAUGARRIAK

3.1. EZAUGARRI FISIKOAK

3.1.1. IZENA

3.1.2. MAIZTASUNA

3.1.3. TIRADA ETA ZABALKUNDEA

3.1.4. ORRIALDE KOPURUA

3.2. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA

3.3. EDUKIA

3.3.1. ATALAK

3.3.2. ATALEN TRATAMENDUA

3.3.3. IRUDIEN TRATAMANDUA

3.3.4. EUSKARA EREDUA

3.3.5. PUBLIZITATEA

4. EGITURA OROKORRA

4.1. EGITURA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA

4.2. ORGANIGRAMA ETA FUNTZIOAK

5. BALIABIDEAK

5.1. PERTSONALAK

5.2. MATERIALAK

6. BANAKETA SISTEMA

6.1. HARPIDETZA

6.2. BANAKETA PUNTUAK

6.3. BANATZAILEAK

7. AZTERKETA EKONOMIKOA

7.1. INBERTSIOAK

7.2. AURREKONTUA

7.3. FINANTZIAKETA

7.4. BALANTZEA

8. ERANSKINAK

-elgoiBARREN!-

1. Sarrera

1.1. PRENTSA LOKALA EUSKAL HERRIAN.

Azken urteotan prentsa lokalak izugarrizko gorakada izan du Euskal Herrian, han eta hemen etengabe sortzen ari dira herri zein eskualde mailako argitarapenak. Azken hiru urteotan lauhoiztu egin da euskal aldizkarien produkzioa. Hamasei aldizkari finko berri sortu dira eta lehenagotik zeudenak birmoldatu.

Prentsa lokala nazio edo eta probintzi mailako prentsak betetzen ez duen hutsunea betetzera dator. Hau da, herri eta eskualdeko informazioek espazio hain murrizta izanik egunkarietako herri kroniketan, aldizkari hauek herriari lotuak dauden gai, pertsonai, zein ekintzei buruzko informazioa eskeintzen dute.

Guztietan ez bada ere, Euskal Herriko herri gehienetan dago, edo egon izan da, herri aldizkari bat. Informazioa, puntuala zein atemporal eta gaien tratamendua, aldizkariaren orrialde kopuruaren eta maiztasunaren arabera aldatu ohi da. Euskara, gaztelera eta frantsesa dira erabiltzen diren hizkuntzak. Normalki, herrian bertan egin eta banatzen dira aldizkari hauek.

-elgoiBARREN!-

Astero, hamabostean behin edo hilabetero jasotzen du irakurleak aldizkaria etxeko buzoi, denda, okindegi, taberna edo eta alde z aurretik erabakitako lekuan; eta, kasu gehienetan, dohain.

Nolabait laburbiltzearren, Euskadin egiten den prentsa lokalak hiru eredu eta xede erabat desberdin dituela esan daiteke:

.- Batetik, gaztelera hutsez eta publizitateari esker dirua irabazteko sortu diren enpresak (Segunda Mano, Diario Metropolitano, El Anuncio Vasco...).

.- Bestetik, udalek informazio zerbitzu bezala argitaratzen dituztenak. Bi hizkuntzak erabili arren, gehienetan gaztelera da nagusi (BIM, Bilbao, Getxobarri, Ayto. Portugalete...).

.- Azkenik, euskaldun irakurle potentzial bat dagoen herrietan argitaratzen diren aldizkariak, batez ere Euskara hutsean idatziak eta herriari buruzko informazio orokorra eskeintzen dutenak (Arrasate-Press, Berrigara, Karkara...)

1.2. ELGOIBARKO EGOERA.

Elgoibartar batek herriari buruzko informazioa jaso nahi badu, nekez jo dezake komunikabideetara. Irrati eta telebista bezalako medioek Euskal Herriko, Estatu espainiarreko zein nazioarteko gaiei heltzen diete, informazio lokala alde batera utziaz. Prentsak, berriz, izan ohi du txoko bat herrietan zehar gertatzen denaren berri emateko, herriko karta edo kroniketan, alegia. Halere, txoko hau ez da, inolaz ere, nahikoa herritarrok dugun informazio egarria asetzeko: batetik, espazioa oso murritza izan ohi da eta, gainera, gai berberak edo oso antzekoak errepikatzen direlako egunero.

Herri aldizkari baten xede eta helburua, berriz, herritarrek protagonista eta informazio iturri duen produktu bat egitea da, gero herrian bertan zabaltzeko: herritarrek herriarentzat eginikoa.

Elgoibarren izan dira hainbat saiakera "Txitxilibakio"rekin herri aldizkari bat aurrera ateratzeko. Baina, arrazoi ezberdinengatik, bertan behera geratu dira saio guztiak.

Proiektu hau gauzatzeko beste herrietako hainbat aldizkari aztertu ditugu, ondoren, Elgoibarko ezaugarriak kontutan izanik, eredu propio bat egituratu ahal izateko. Elgoibarren arrakasta izango duen aldizkariaren ildo nagusiak, honako hauek lirateke: Euskarazkoa, herriari buruzko informazio orokorra

-elgoiBARREN!-

jorratuko duena, azpiegitura profesionalarekin herriarentzat
egina (langile finkoak, autoediziorako ordenagailuak eta egoitza
propioa izanik), dohain banatuko dena, publizitate eta
dirulaguntzekin finantziatutakoa eta maiztasunari dagokionean,
astekaria.

-elgoiBARREN!-

2. Aldizkariaren beharra

-elgoiBARREN!-

Herri aldizkari baten proiektuan murgildurik dagoen oro honen garrantziaz jabetu behar da eta ez "aldameneko herrietan egiten dutenez gu ere ez gara gutxiago izango" pentsatuz aldizkaria plazaratu.

Herri aldizkari baten beharraz hitzegiterakoan ikuspegi ezberdinak izan behar ditugu kontutan. Ikus ditzagun gure ustetan aipagarri edo garrantzitsuenak direnak:

. Elgoibar bezalako herri ertain batean oso sakabanaturik gaude herritarrok. Alde honetatik giza harremanen bultzatzaile ikusten dugu, herritarren arteko harremanak areagotuz.

. Herri mailako aldizkari batek, beste inongo komunikabidek sortuko ez duen informazioa sortzen du. Elgoibarri buruzko etengabeko informazio iturria izango da, honek herritarrentzat duen abantailarekin. Herri batean gustora bizitzeko biderik aproposena hau ondo ezagutzean datza.

. Informazioa sortu ezezik banatu ere egingo du. Herri aldizkariaren helburua Elgoibarko etxe eta txoko guztietara heltzea izanik, herritik sortzen den informazioa herriari eskeiniko zaio.

Egun egunkarietan azaltzen den herri kroniketako informazioa oso eskasa dela aitortzea ez da lekuz kanpo egongo.

-elgoiBARREN!-

. Kultura herri baten osasunaren islada izanik, kultur eragile eta hedatzaile dugu astekaria, bera bait da herriaren arnasaren ispilu.

. Herri mailako publizitatearen eragile. Merkatal etxe indartsuak salbu, Elgoibarko merkatal etxe gehientsuenek ez dute publizitaterik egiteko aukerarik. Herri aldizkariak aukera paregabea eskeintzen die herritarrengana iristeko.

. Elgoibarko euskaldunak ez daukagu herriko informazioa gure hizkuntzan jasotzeko aukerarik (salbuespen txiki batzuk ezik). Elgoibarko euskaldunon portzentaia % 60 izanik, zerbait egiteko ordua iritsi delakoan gaude.

. Egunkarietako herri kroniketan Euskarari ematen dioten tratamendua negargarria da: % 5'7.

DIARIO	CORREO	DEIA	EGIN
% 1'6	Batere	% 6'9	% 14'4

(*) Ikus 2. eranskina.

-elgoiBARREN!-

. Euskal prentsak oso estimazio eskasa du Elgoibarren. ((*) ikus 3. eranskina.) Ez ote da izango herritarrengandik urruti gelditzen den zerbait delako?. Aldizkari herrikoi, simple, praktiko eta irakurterreza egin nahi dugu Elgoibarko irakurlego potentziala erakartzeko eta ez betiko gutxiengo euskaltzale militante edo kulturzalearentzat bakarrik planteaturiko ohizko aldizkari bat.

. Elgoibarren euskal irakurlego potentziala nahiko handia da. % 42a euskeraz ondo irakurtzeko gai da; honi zerbait irakurtzen dakitenen kopurua gehituz gero erdia pasa lortzen dugu. Aldiz, % 76ak ez du batere irakurtzen, % 10ak oso gutxi, noizbehinka % 5ak eta sarritan % 0'8ak. (*) Ikus 1. eranskina.

Herri aldizkari honekin Euskaraz irakurtzeko zaletasuna lortu behar dugu; batez ere, nahiz eta gai izan noizbehinka bakarrik edota sekula irakurtzen ez dutenengana iritsi behar dugu.

Hauek, eta airean gelditu zaizkigun beste batzuk, izango lirateke herri aldizkari baten beharraz hitzegiterakoan aipatu beharreko hainbat puntu.

-elgoiBARREN!-

3. Aldizkariaren ezaugarriak

3.1. EZAUGARRI FISIKOAK

3.1.1. Izena

Beste zenbait izen esku artean erabili ondoren, **elgoiBARREN** iruditu zaigu egokiena astekari hau izendatzeko.

Izen honek bi betekizun ditu: batetik, produktua nongoa den adieraztea, oriotar batek, adibidez, aldizkaria esku artean daukanean zein herritakoa den jakiteko. Bestetik, Elgoibarko hizkeraren ezaugarri propio bat dugun, "Barren"i presentzia ematea.

3.1.2. Maiztasuna

Maiztasunari dagokionez, eztabaida luze eta sakonak izan ondoren, gai honetan aintzindari izan direnekin hitzegin eta gero, gure benetako helburuak lortu ahal izateko aproposena astekaria dela erabaki dugu.

3.1.3. Tirada eta zabalkundea

Lehendabiziko bizpahiru zenbakien tirada 2.500 alekoa izango da. "Elgoibarko Izarra"ko bazkideak automatikoki izango dira harpidedun eta etxeko buzoian utziko zaie aldizkaria. Gainontzeko 2.000 aleak herriko toki konkretuetan utziko dira (okindegiak, prentsa saltzen duten dendak...) edonork har ditzan. Era berean, ale bakoitzean harpidetza txartel bat izango da **elgoiBARREN** etxeko buzoian jaso nahi duen edozeinek bete dezan.

Harpidetza txartelak jaso ahala, tirada eskaerari egokituko zaio, azken helburua harpidedunei buzoian sartzea izango delarik, beti ere, badaezpadan, ale batzuk lehen aipatutako tokietan lagako direlarik.

Arestian aipatu bezala, aldizkaria doan banatuko da. Batzutan doaneko produktua, gauza eskas edo azpiproduktuekin parekatu izan bada ere, hau guztiz okerra dela esan behar. Aldizkaria saltzeak merkatuko beste aldizkari guztiekin lehia sartzea esan nahi du. Kasu honetan irakurlea kioskora joan behar da eta gainera ordaindu egin behar du aldizkaria. Modu honetan seguruenik zabalkunde murriztagoa lortuko genuke eta, ondorioz, publizitate gutxiago.

Doan izateak, berriz, badu hainbat abantaila: batetik, banaketa pertsonalizatzeko aukera handiagoa ematen du, askoz jende gehiagorengana hel daiteke eta, ondorioz, publizitate eta diru sarrera ugariago bat lortzeko bidea da.

3.1.4. Zenbaki eta orrialde kopurua

Urtero 45 zenbaki kaleratuko dira. Astero bat eta hilabetean lau. Abuztuan oporrak izango diren arren, San Bartolometarako ale berezi bat kaleratuko da.

Mementuz orrialde kopurua 20koa izango da. Dena den, kontutan izan behar da kopuru hori aldagarria dela data berezietan (Gabonak, San Bartolome festak eta abar).

3.2. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA

Herri aldizkari bati buruz ari garenean puntu garrantzitsu batzuk izan behar ditugu oso kontutan:

1. Aldizkari guztietan hala bada ere, herri aldizkarietan nabarmenagoa da, irakurketa erraztu egin behar zaio irakurleari, gauzak erraz eta samur irakur ditzan. Irakurketa gauzarik atsegin eta errezena izan dadin egin behar da lan.

2. Irakurketari eskeintzen diogun denbora gutxituz dihoanez argi ibili behar dugu idazterakoan; hau da, bi edo hiru irakurketa posible egiten duten sistemak erabiliko ditugu: aurretituloak, tituluak, azpituloak, sarrerak, argazki-oinak, aipuak testuan zehar, testu-kutxak,... Astirik ez duen irakurleak goian aipatutakoak irakurriko ditu lehenbizi eta ondoren, gaia interesgarria iruditzen bazaio, idazlan osoa irakurriko du. Bestela, aurrera egingo du bere begien arreta erakurriko duen hurrengo orrialderaino.

3. Laburtasunak ikaragarri errazten du irakurketa. Gogoratu helburua irakurtzen ohituta ez dagoen jendearekin komunikatzea dela.

Beraz, artikulu luzeak idaztea tokatzen denean zatikatu edukina eta modu atseginean antolatu eta aurkeztuko da, irakurlea errazago sar dadin.

-elgoiBARREN!-

4. Hizkuntza ere erraza izango da. Herri mailan ari gara eta berriro ere gogora ekartzea komeni da jende gehienak ez duela Euskaraz irakurtzeko ohiturarik.

Prentsa herritarra, popularra egin behar dugu.

Esaldiak sinpleak izan behar dira, erraz ulertzekoak eta ahalik eta laburrenak.

5. Ezin dugu ahaztu irudiaren kulturari bizi garela. Hau honela izanik, herri aldizkari baten hiru elementu oso garrantzitsu izan behar ditugu kontutan:

- Argazkiak.
- Infografikoak.
- Kolorea.

Kolorearena izango da zailena momentuz, aldizkariaren kostua ikaragarri garestitzen duelako.

Argazkiei dagokienean, guztiz beharrezkoak dira herri aldizkari batean. Argazkiak biziak behar dira, herritarrak protagonista eta sujetu nagusi dituztenak. Argazkiek izugarritzko garrantzia dute, besteak beste jendeari (denoi) izugarri gustatzen zaiolako (zaigulako) beraietan agertzea.

Euskaraz jakin ala ez argazkiak bere hizkuntz propioa du, jendeak baloratu egiten ditu argazkiak eta beraietan motiborik agertuz gero, albokoa irakurtzera edo itzulpena eskatzera bultzatuko du.

-elgoiBARREN!-

Infografikoei dagokienez, teknika berezia eskatzen da eta herri aldizkarietan askotan posible ez den lan egiteko sistema desberdina. Ondo erabiliz gero, posible egiten du begi-kolpe batez eta lan berezirik egin gabe, albistea bere osoan hobeto ulertzea.

3.3 EDUKIA.

3.3.1. Atalak

Hona hemen elgoiBARREN aldizkariak izango dituen atalen zerrenda:

- 1.- Aurkibidea
- 2.- Beharrezko telefonoak
- 3.- Komikia
- 4.- Eritzi artikulua
- 5.- Gutunak
- 6.- Erretratu zaharra
- 7.- Erreportaia
- 8.- Leon-kastillo
- 9.- Eta zure ustez?
- 10.- Motzean kontatzekoak
- 11.- Berbetan
- 12.- Bata ala bestea?
- 13.- Bertsotan
- 14.- Kirola
- 15.- Elkarteetatik buelta bat
- 16.- Kultura
- 17.- Agenda
- 18.- Zuk eman eta nik hartu (merkatu txikia)
- 19.- Jaiotzak, ezkontzak, hildakoak
- 20.- Leihaketa (hilean behin)

3.3.2. Atalen tratamendua .

* Azala.

Kontutan izan behar da azalaren erakargarritasunak duen garrantzia, izan ere, begietatik sartzen den lehen elementua da. Aldizkariaren izena batetik eta bestetik herria, data, eta zenbakia ere azalean joango dira.

Argazkiaren kalitatea zaintzea beharrezkoa da, ahal den neurrian koloretan izango delarik. Argazki hori, barnean doan gai bati lotua izango da, azalean bertan gai horri dagokion titularra jarriko delarik.

Azkenik, azaleko publizitateari dagokionez, ez da inoiz hiru modulo baino gehiagokoa izango.

* Aurkibidea.

Atal bakoitzean jorratzen den gaia zehaztuko da eta zein orrialdetan doan adierazi.

* Beharrezko telefonoak.

Erabilgarritasuna da atal honen helburua, premiazko zenbait telefono eskura izan ditzan irakurleak. Udaletxea, Gurutze Gorria, DYA, anbulatorioa, ambulanziaz, Udaltzaingoa, Ertzantza, suhiltzaileak, garraioak, Liburutegia eta abar.

* Komikia.

Atal hau betetzeko urte bete komikiaren munduan murgildua dabilen talde bati eskatuko zaio kolaborazioa, "Kokoe"-ri hain zuzen. Beraien esku geratuko da astero lehen orrialde honetan joango den 3-4 biñetaz osaturiko tira bat egitea.

* elgoiBARREN !!.

Kuadro batetan aldizkaria egiten dutenen zerrenda joango da, hala nola, argitaratzailea, laguntzaileak, zuzendaria, erredakzioa, maketatzailea, publizista, kolaboratzaileak, erredakzio kontseilua, inprimategia, lege gordailuaren zenbakia, ISSN-a eta tirada.

* Eritzi artikulua.

Zuzendariak izenpetuko duen zutabea.

* Gutunak

Irakurleek igorritako gutunak azalduko dira orrialde honetan. Aldizkarian bertan aurrez jorratu diren gaiei buruzko eritziak zein bestelakoak plazaratzeko aukera eskeiniko zaie herritarrei.

* Erretratu zaharrak.

Elgoibarri loturik daueden argazki zaharrak berreskuratuko ditugu, azpian komentario bat itsatsiko zaielarik.

* Erreportaia.

Astero pilpilean dagoen gai bati helduko zaio. Nolabaiteko gaurkotasuna duten gaiak izango dute lehentasuna, baina horrelakorik ez dagoenenan beste edozein gai apropos bilatuko da. Erreportaian berebiziko garrantzia dute argazkiek. Bi edo hiru argazki izango ditu atal honek.

* Leon-kastillo.

Atal honen barnean polemika duen gai batetaz arituko gara. Eritzi kontrajarriak edo ezberdinak dituzten bi pertsonen kolaborazio bana eskatuko zaie. Ez da erraza izango astero eritzi kontrajarriak sortzen dituen gai bat bilatzea, beraz, ez dagonean edozein gai aukeratu eta horri buruzko kolaborazio bat eskatuko da.

Herria oso handia ez den arren, denok elkar ezagutzen ez dugunez, komenigarria erizten diogu kolaboratzaile bakoitzaren izen-abizena eta argazki bat agertzeari.

* Eta zure ustez?.

Honako hau aurreko atalarekin loturiko inkesta fotografiko bat dugu. Helburua, aurreko orrialdean planteatzen den gaiari buruz kaleko jendeak duen eritzia jasotzea da.

Orrialdearen goiko partean galdera idatziko da. Behean, berriz, aukeraturiko pertsonen argazki bana eta honen azpian bakoitzaren erantzuna. Sei pertsona izango dira inkestatuak ale bakoitzean.

* Motzean kontatzekoak.

Labur kontatzeko informazioek eta fotonotiziek beteko dute atal hau.

* Berbetan.

Elkarrizketatua nor izango den zuzendariak edo erredakzioak erabakiko du. Dena den, herri aldizkari bat dela kontutan izanik, elkarrizketatu guztiak, bertakoak ez izan arren, Elgoibarrekin zerikusia edo eta herriari buruz zerbait esateko dutenak izatea komeni da.

Atal honetan elkarrizketatuaren argazki bat agertuko da.

* Bata ala bestea?

Elkarrizketa sikologikoa bezala ezagutzen den elkarrizketa mota litzateke. Elkarrizketatuari bi proposamen luzatzen zaizkio bat aukera dezan, beti ere erantzun motzeko galderak direlarik, esaterako: gaua ala eguna?, gustoko duzun aktorea baten izena?, ardoa ala zerbeza?...

Atal honetan beharrezkoa izango da elkarrizketatuaren izen-abizena, lanbidea eta argazki bat agertzea.

* Bertsotan.

Bertso eskolako ikasleek edo eta Elgoibarko edozein bertsozaleren esku egongo da atal honetarako pare bat bertso idaztea.

* Kirola.

Kirola futbola baino esparru handiagoa dela kontutan izanik, Elgoibarren burutzen diren edo eta elgoibartarrak hemendik kanpo burutzen dituzten kirol ekintzen berri emango da bi orrialde hauetan.

Informazioaren tratamenduari dagokionez, elkarrizketatxo bat, emaitzak, berriak modu laburrean, kirol agenda eta abar ematea proposatzen da. Gainera astean behin orrialde erdi eskeiniko zaio kirolean aritzen den talde edo kirolariren bati.

* Elkarteetatik buelta bat.

Ale bakoitzean gastronomi elkarte bat aukeratuko da eta orrialde hau eskeiniko zaio. Bertan, elkarte honen ezaugarriak, gorabeherak, bazkide kopurua, historia eta abar azalduko dira.

Gainera, maketatzailleak hobekien deritzon lekuan, baina orrialde honetan bertan, elkarteak berak emandako errezeta bat ipiniko dugu, gustoko duen irakurleak bere sukalde trebetasunak frogatu ditzen.

Gastronomi Elkarteak ezezik Kultur Elkarte ezberdinek ere izango dute bere parada bakoitzak egiten duena azaltzeko.

* Kultura.

Elgoibarko kultur ihardueraren lekuko izan nahi du orrialde honek.

* Agenda.

Asteroko agenda sailez sail, hala nola, zinea, musika, hitzaldiak, erakusketak, lehiaketak, deialdiak, jaiak, mendi irteerak eta abar. Gainera, aste horretako farmazia eta okindegien turnoak ere jarriko dira.

* Zuk eman eta nik hartu.

Doaneko iragarkiak. Atal honek irakurleen arteko hartu emanak sortzeko balio du: kontaktuak, salerosketak, eskeintzak...

Orrialde honetan gisa honetako txarteltxo bat erantsiko da:

SAIL HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. IDATZI TESTUA
AZPIAN ETA BIDALI GURE HELBIDERA.

TESTUA.....
.....
.....
.....
.....
.....

* Jaiotzak, heriotzak, ezkontzak.

Astean zehar herrian jaio, hil eta ezkondu direnen izen-abizenak.

* Ezetz asmatu?

Hilabetero lehiaketa bat antolatuko da. Irakurleek, elgoiBARREnera bidali beharko dituzte erantzunak. Ongi erantzun dutenen artean sari bat zozketatu eta hurrengo alean irabazlearen argazki bat aterako da.

-elgoiBARREN!-

Lehiaketa mota zuzendariaren esku geratzen den arren, hona hemen zenbait proposamen: Elgoibarko txoko ezkutu samar baten argazki bat ipini eta "ezetz asmatu non dagoen toki hau?", edo pertsonai ezagun baten argazkia moztu , era desberdin batetan antolatu eta "ezetz asmatu nor den?", galdera kulturalak...

* Azken orrialdea edo kontrazala.

Publizitatearentzat utziko da orrialde hau oso-osorik.

3.3.3 Irudiaren tratamendua

Irudiak berebiziko garrantzia du edozein kazetal lanetan, baina are handiagoa gure kasuan, helburua produktu arin eta irakurterrez bat egitea denean. Irudi eta argazkiek alferrikako hitz asko ordezkatu ohi dituzte eta, gainera, irakurle alferrak erakartzeko "gantxo" ezin hobe da.

Argazkietan jendea agertzea komeni da, herritarrak bait dira herriko protagonistak eta aldizkari hau irakurriz gero horrela sentitu behar dira. Izan ere, guztioi sortzen zaigu nolabaiteko jakinmina aurpegi ezagun baten argazkia ikusten dugunean.

Argazkien kalitatea, beraz, bereziki zainduko da eta gutxieneko maila betetzen ez duten argazkiak baztertu egingo dira besterik gabe. Komenigarria da azaleko argazkiari dagokionez are zorrotzagoak izatea.

Oso komenigarria da argazki artxibo bat sortzen hastea. Astekari baten erritmo bizia, kontutan izanik, gerta daiteke astirik ez izatea argazkiak errebelatzeko. Badira zenbit leku gaurkotasunik ez dutenak eta komenigarria da artxiboan edukitzea behar direnean erabiltzeko.

Dena den, ezin ahaztu Elgoibarren badela argazki munduan aritzen den ONGARRI kolektiboa eta aproposa litzateke beraiekin harremanetan jartzea, bai argazkiak ateratzeko orduan, eta bai argazki zaharrak eskuratzeko orduan.

Halere, erredakzioan argazki kamera behar beharrezko tresna da eta normalki, informazioak egiten dituen pertsonak aterako ditu argazkiak.

3.3.4. Euskara eredua.

Kontutan izanik helburua herritar guztiengana iristea dela (gazte, etxeoandre, ikasle, jubilatu, langile...), ahalik eta Euskara zehatz eta ulergarriena erabiliko da, beti ere, kontutan izanik ulergarria ez dela zertan sinplea izan behar.

Euskara batua erabiliko da orokorrean, nahiz eta atal bereziren bat edo, hala hobetsi ezker, zenbait elkarrizketa elgoibartarrez mantenduko diren. Hau da, informazio-iturri herritarrek direnenan zuzenean (elkarrizketa, inkesta fotografikoa, "Bata ala bestia ?" ...) beraien ahozko hizkuntza transkribatuko da ahal den heinean.

Irakurle asko sekula Euskaraz irakurri gabeak izango direnez, arazo bera izango dute elgoibartarrez nahiz batuaz idatzia egon. Gainera, gure herriko Euskara, hizkuntz idatziari dagokionean beheinik behin, normalizatua ez dagonez, hainbat kasutan zaila gerta dakiguke elgoibartarrez idaztea.

3.3.5. Publizitatea.

Publizitatea aldizkariaren % 30 izango da gehienez. Zenbateko hau modulutan jarriz gero, zenbaki bakoitzean ez dira 120 modulu baino gehiago sartuko. Modulu bakoitzaren neurria 5'5 x 4 zm.takoa izango da. Moduluak maketatzaileak hobekien deritzon moduan banatuko dira aldizkarian zehar, orrialdearen izaera, publizitate kopurua eta abar... kontutan izanik.

Ezin dugu ahaztu publizitatea finantziabide oso inportantea dela, horregatik babestu eta mimatu egin behar da. Beharrezkoa da kalitate kontrol zorrotz bat ezartzea bai letra eta irudi kalitateari dagokionez, bai eta testuen zuzentasunari dagokionez. Edozein merkatari zein enpresarik berak ordaindutako iragarkiak txukun irteten direla ikusten badu, hurrengoan diru gehiago inbertitzeko prest egongo da.

Herri aldizkari honen tirada 2.500 aletakoa izanik, eta beste aldizkari zein egunkariak moduloko kobratzen duten prezio garestiak ahaztu gabe, elgoiBARREN aukera ezin hobea da bere

-elgoiBARREN!-

negozioaren propaganda egin nahi duen edonorentzat. Publizitatea, beraz, aldizkariaren ezinbesteko diru iturria izateaz gain, marketing munduan aukera bikaina da publizitate merke eta eraginkorra egin nahi duen merkatariarentzat. Publizitatea Euskaraz eta era profesional batean egitea posible dela frogatzeko aukera apartekoa izango da.

-elgoiBARREN!-

4.Egitura orokorra


4.1.EGITURA JURIDIKO ADMINISTRATIBOA.

Aldizkariaren jabegoa eta erantzunkizuna "Elgoibarko Izarra"ren esku geratzen da.

Aldizkariaren administrazioari dagokionean, momentuz zuzendariaren esku geratuko da. Dena den, edozein diru partidari baietza edo ezetza emango diona "Elgoibarko Izarra"ko zuzendaritza batzordea izango da.

4.2.ORGANIGRAMA ETA FUNTZIOAK.

4.2.1.Organigrama



4.2.2. Funtzioak

1. "Elgoibarko Izarra"ko Zuzendaritza Batzordea

Batzorde honen funtzioa astekariaren aurrekontuak onartzea ezezik, aldizkariaren erantzulea eta jabea ere izango da.

Batzorde honen partaide den "Komunikabide taldeko" ordezkaria izango da elgoiBARREN eta Elkartearen arteko lotura, pertsona hau Erredakzio kontseiluko partaide ere izango delarik.

2. Zuzendaria

Zuzendaria izango da aldizkariaren arduraduna. Berak izango ditu aldizkariaren erantzunkizun eta ardurarik handienak, Elkartea zuzendaria laguntzeko eta babesteko badago ere.

Zuzendariaren ardura izango da astero aldizkaria behar den egunean eta behar den bezala kaleratzea.

Goian aipatu bezala, Elkartea izango da zuzendariaren gaineratik dagoena eta azken finean aldizkariaren erantzule.

Gainontzeko langile guztiak zuzendariaren esanetara egongo dira eta bera izango da langile hauen lanaren arduraduna.

Aldizkariaren irikitasuna bere esku egongo da hein handi batean, bapateko erabakiak askotan hartu beharko dituelarik.

3."Erredakzio Kontseilua"

Erredakzio kontseilua izango da aldizkariaren nondik norakoa finkatuko duena. Berak erabakiko du gaien tratamendua, zer gehitu eta zer kendu,... Aldizkariaren irekitasuna ere talde honek bermatu behar du, zuzendaria izango delarik buru.Bera izango da aldizkariak herrian duen oihartzunaren barometroaren azterketa egingo duena.

Astean behin elkartuko da aurreko alearen balorazioa eta hurrengoaren azterketa egiteko.

4. Aldizkariko taldea.

Erredakzio kontseiluak astekariaren gaien ardura duen bezala, zuzendaritzak aldizkariari dagozkion gainontzeko gai guztiak hartuko ditu bere gain.

Honako hauek osatuko dute talde hau:

- Zuzendaria
- Maketatzailea
- Publizista
- Banatzaileen arduraduna
- Administraria
- Elkarteko komunikabide taldeko ordezkaria
- Kazetaria
- Kolaboratzaileak

- Maketatzalea

Maketatzalearen funtzioa, izenak dioen bezala, aldizkariaren itxura ganorazko bat bermatzea da. Horretarako testuen banaketa argazkien kokagunea, letren tamainuak, grafikak, izenburuak, eta abar... izango ditu kontutan. Azken finean, aldizkaria bistarako atsegina izan dadila lortu behar du.

- Publizista

Bere esku geratuko dira publizitateari dagozkion ardura guztiak. Batetik, iragarkiak jarriko dituzten bezeroak aurkitu eta, bestetik, behar izanez gero, iragarkiak diseinatu: slogana asmatu, marrazkiak egin, testua idatzi, eta abar... Hala ere, kontutan izan behar da, zenbait lanetarako maketatzalearen laguntza izango duela, bera izango bait da publizitate moduloak ordenagailuan sartuko dituen.

- Banaketa arduraduna

Izenak dioen bezala, astekariaren banaketaz arduratuko den pertsona da. Berak izango du astekaria behar den unean banatzeko ardura.

- Administraria

Pertsona honen esku geldituko da aldizkariaren administrazioa, batez ere, diru kontuei dagokionean.

- Elkarteko ordezkaria

Pertsona hau izango da Elkartea eta aldizkariaren arteko zubi eta aldizkariko zuzendaria izango da ordezkari honen informazio iturri.

- kazetaria

Pertsona hau aldizkariaren langilea izango da eta bere eginkizuna erredakzio lana izango da nagusiki, beti ere, zuzendariaren esanetara egongo delarik.

- Kolaboratzaileak

Bi kolaboratzaile moeta desberdinduko ditugu:

-Iraunkorrek: Erredakzio lanetan kolaboratu nahi duen edonor. Lanerako prest dagoen guztiarentzat zabalik egonen dira aldizkariaren atearak. Zuzendariaren eginbeharra izango da hauen lana gidatzea.

-Noizbehinkakoak: Gai zehatz baten inguruan eskatuko diren kolaborazio lanak, zenbaki bakoitzean pertsona desberdinei. Lan hauek izenpetuak joango dira beti eta, posible balitz, argazki eta guzti.

-elgoiBARREN!-

- Banatzaileak

Aldizkaria inprentatik atera bezain laister, harpidedun diren guztien etxeko buzoietan aldizkaria lagatzeaz arduratuko dira. Banatzaile hauek arduradun bat izango dute eta berak antolatuko du aldizkariaren banaketa.

-elgoiBARREN!-

5.Baliabideak

5.1.PERTSONALAK

Aurreko atalean aldizkariaren organigrama osatzen dutenen eta berauen funtzioetaz aritu garenean, baliabide pertsonalak eta bakoitzaren eginbeharrak aipatu ditugu; dena den, ondoren berriro helduko diegu zenbait informazio gehigarri erantsiz.

5.1.1. Zuzendaria

Zuzendariak hiruzpalau ordu eskeiniko dizkio egunero astekariari. Bere ardura, arestian aipatu bezala, erredakzio lanak izango baditu ere, astekariaren zuzendaritza izango da. Berak bermatu beharko du astekariaren osasun ona.

5.1.2. Kazetaria

Astekari bat ateratzeko pertsona bakarra nahikoa ez denez, zuzendariak kazetari bat izango du alboan. Kazetari hau ere egun osoz arituko da lanean eta zuzendaria bezala Elkarteak kontratatuko du.

5.1.3. Maketatzaillea

Maketatzailleari dagokionean, Elkartek autoedizioa du helburu, beraz, maketatzaille propio bat eskuratu nahi du. Hala ere, oraingoz aukerarik ez dagoenez Elkartetik kanpo dagoen maketatzaille batekin hasiko gara lanean urtebeterako. Urtebete honetan pertsonarenbat gaitu nahiko genuke maketazio lanak beregain hartzeko.

5.1.4. Publizista

Arestian aipatu izan dugun bezala, publizitatea aldizkaria finantziatzeko ezinbesteko diruiturria da, beraz oso kontutan izan behar da noren esku utziko den ardura hau. Publizistak dinamikoa eta jendearekin harremanetan jartzeko gaitua behar du. Horrez gainera publizitate munduan aditua izan ezkeru are hobeto.

Aldizkariaren % 30 eskeiniko zaio gehienez publizitateari, modulotan, 120 modulo gutxigorabehera. Publizistak lortzen dituen iragarkien araberako soldata bat jasoko du.

5.1.5. Kolaboratzaileak

Zuzendaria eta kazetaria egun osoz aritu arren argi dago ezin dutela aldizkariaren pisu osoa bere gain hartu. Kolaboratzaileen laguntza ezinbestekoa da elgoiBARRENek izango dituen atal desberdinak lantzeko orduan. Kolaboratzaileek aurrekoek ez bezala, ez dute dirusaririk izango eta lan boluntarioa egingo dute.

5.1.6. Banatzaileak

Berauen egin beharra aldizkaria irakurleen eskuetara iristea da. Harpidedun guztiei etxeko postontzian utziko zaie ale bana eta soberan dauden aleak aurrez zehazturiko tokietan banatuko dituzte edonork hartu eta etxera eraman dezan.

Lan hau egiteko proposamena Elgoibarko ikastexeetako ikasleei luzatuko zaie. Oraindik zein adinetako ikasleei eskeiniko diegun erabaki ez badugu ere, seguraski ertainetakoei luzatuko diegu eskeintza. Dena den, hau geroago erabakiko dugun zerbait da. Banatzaileek ere diru sari bat izango dute, ale bakoitzeko 7 pezeta kobratuko dutelarik.

5.2.MATERIALAK

5.2.1. Lokala

Behar beharrezkoa da aldizkariak bere lokal propioa izatea. Batetik kontutan izan behar da bi langile arituko direla egun osoz eta hauek bere lana egiteko lantokia behar beharrezkoa dutela.

Bestalde, elgoiBARRENek derrigorrez behar du helbide bat, bai eta telefono zenbaki bat ere, herrikoek zein kanpokoak nora jo jakin dezaten.

Tresneriak ez duenez toki asko behar 40-60 m²-ko lokala nahiko izango litzateke. Bestalde, oso garrantzitsua da lokalaren kokapena. Herritarrek aldizkarira hurbiltzea beharrezkoa denez, komenigarria da lokala Elgoibarko erdigunean kokatzea.

5.2.2. Tresneria

5.2.2.1. ALTZARIAK

- Erredakziorako 2 mahai.
- Ordenagailuarentzat beste mahai bat.
- Lau aulki.
- Artxibadore bat dokumentuentzat.
- Argazki artxibadore bat.
- Apalak.
- Abixuak jartzeko kortxo bat.
- Armairu bat.
- Lokalaren arabera berogailu bat.

5.2.2.2. TEKNOLOGIA

- HARDWARE

. Macintosh LC ordenagailu bat 4 Mb.tako RAM memoriaduna eta 40 Mb.tako barruko disko gogorrarekin + 12"tako monitorea koloretan + teklatura, mikrofonoa eta arratoia.

. Macintosh II Ci ordenagailu bat, 5 Mbtako RAM memoriaduduna eta 80 Mb.tako barne disko gogorra + Apple teklatu bat + 20"tako Radios monitorea.

. Laserwriter Personal NT inpresora bat.

-elgoiBARREN!-

. Beste zenbait gehigarri: (Ampliacion de memoria RAM para C1 a 8 Mb + 3 Phonenet de 8 pines.)

- SOFTWARE

- . QUARKXPRESS (Maketaziorako programa)
- . ALDUS FREEHAND 3.0 (Diseinurako programa)

5.2.2.3. BESTELAKOAK

- Telefonoa.
- Bi argazki kamera.
- Bi grabadora.
- Erredakzio materiala: Orriak, boligrafoak...

-elgoiBARREN!-

6. Banaketa sistema

6.1. HARPIDETZA

Aldizkaria dohain banatuko zaio eskatzen duen edonori. Harpidedunei, etxeko buzoian utziko zaie aldizkaria astero. Nor izan daiteke harpidedun? Nahi duen guztiak jaso dezake elgoiBARREN bere etxean. Haseran, "Elgoibarko Izarra"ko bazkide guztiak automatikoki izango dira aldizkariko harpidedun. Ale guztietan harpidetza txartel bat azalduko da, txartela bete eta "elgoiBARREN !!"-era bidali ondoren aldizkaria etxean jaso ahal izateko. Gerora begira Elgoibarko etxe guztietara aldizkari bana heltzea litzateke helburua.

Hona hemen, harpidetza txartelaren eredu bat:

<p>NIK ERE elgoiBARREN !! JASO NAHI DUT:</p> <p>Izena:.....</p> <p>Abizena:.....</p> <p>Helbidea:.....</p> <p>elgoiBARREN !! /Elgoibar /740000</p>
--

Banaketa sistema hau erabat funtseskoa da, hau da, dohainekoa eta norberaren etxeko postontzira. Euskarak gizarte-eskari mugatua duenez, oso garrantzizkoa da jendeari alea eskura ematea. Izan ere, zer gertatuko litzateke jendeak dendara edo kioskora joan eta erosi edo eskatu behar balu aldizkaria? Oihartzuna, dudarik gabe, txikiagoa izango litzateke.

-elgoiBARREN!-

6.2. BANAKETA PUNTUAK

Harpidedunei buzoian utziko zaie aldizkaria. Gainontzean, Ikastetxe, euskaltegi, taberna, hileapaindegi, enpresa eta kontsultak ere automatikoki egingo dira harpidedun eta hilabetero beharrezko ikusten diren aleak bidaliko zaizkie, beti ere, aldizkariaren izena ezagutarazi asmoz.

Dena den, eta harpidetza zerrendak zehaztu arte, bestelako prentsa saltzen duten postuetan (prentsa postu, okindegi edo eta dendetan) banatuko dira gainontzeko aleak nahi duenak debalde har ditzan.

6.3. BANATZAILEAK

Aurrez esan bezala, Elgoibarko ikasleei eskeiniko zaie lan hau. Beraien eginbeharra honako hau izango da: harpidedun guztiei buzoian ale bana eta aurrez erabakitako postuetan aldizkariak uztea. Banaketa eguna, oraindik zehaztuta ez badago ere, ostirala izan daiteke aproposena.

-elgoiBARREN!-

7. Azterketa ekonomikoa

-elgoiBARREN!-

7.1. INBERTSIOAK

7.1.1. Tresneria

- Teknologia

- Hardward: Macintos LC bat..... 195.000 pta.
Macintos II Ci bat..... 1.228.832 pta.
Laserwriter Personal NT inpresora... 196.350 pta.
Gehigarriak..... 49.700 pta.

- Software: Quarkxpress maketaziorako programa.. 175.000 pta.
Aldus Freehand 3.0 diseinu programa...92.500 pta.

GUZTIRA.....1.937.382 pta.
BEZ..... 251.860 pta.

GUZTIRA..... 2.189.242 PTA.

- Bi argazki kamera..... 140.000 pta.

- Grabagailuak..... 10.000 pta.

GUZTIRA..... 2.339.242 pta.

-elgoiBARREN!-

7.1.2. Altzariak

- 3 mahai..... 60.000 pezta.
- 4 aulki..... 25.000 pezta.
- 2 artxibadore..... 22.000 pezta.
- Armairu bat..... 25.000 pezta.
- Apalak..... 10.000 pezta.

GUZTIRA..... 142.000 pezta.

7.1.3. Lokalaren egokitzapena:(Behar izanez gero)

- Telefonoa konektatzea..... 41.000 pezta.
- Margozketa..... 100.000 pezta.

GUZTIRA..... 141.000 pezta.

-elgoiBARREN!-

7.1.4. Inbertsio osoa

- Tresneria.....	2.339.242 pta.
- Altzariak.....	142.000 pta.
- Egokitzapena.....	141.000 pta.

GUZTIRA.....	2.622.242 pta.

Inbertsio honi aurre egiteko urtean 500.000 pta. sartuko dira gastu bezala ekipamendua amortizatzen joateko.

-elgoiBARREN!-

7.2. URTEKO AURREKONTUA

7.2.1. Pertsonal gastuak

- Zuzendariaren lansaria..... 600.000 pta.
- Kazetariaren soldata..... 2.842.833 pta.
- Maketatzaillearen soldata..... 2.842.833 pta.
- Publizitate eta administrazio lanen
ordainketa..... 2.842.833 pta.

GUZTIRA..... 9.128.499 pta.

7.2.2. Inprenta

Hauek dira inprenta ezberdinak eman dizkiguten
aurrekontuak:

Jauregi (Elgoibar)

* Azala bi koloretan eta barruan bat..... 197.500 pta.
Oharra: bi egun behar dituzte gutxienez lana egiteko eta
epe hau ez da egokitzen gure beharretara.

Arrillaga (Elgoibar)

* Azalean bi kolore eta barruan bat..... 137.383 pta.
Prezio honi fotolitoen kostua eta BEZA gehitu behar zaio.
Oharra: hiru egun behar dituzte lana burutzeko eta epe
hau ez da egokitzen gure beharretara.

Antza (Lasarte-Oria)

-Papera: azalean LUX 130 g. eta barruan OFFSET 80 g.
-Lana 24 ordutan egin dezakete.
* Dena kolore batean.....109.180 pta.
* Azala bi koloretan eta barrua kolore
batean..... 124.000pta.
* Dena bi koloretan.....164.000 pta.

-elgoiBARREN!-

Gertu (Oñati)

-Lana 24 ordutan burutu dezakete.

* Azala bi koloretan eta barruan bakarra (Berrigara, Arrasate Press).....115.000 pta.

* Azalean bi kolore eta barruan beste bi.... 196.000 pta.

115.000 x 45 zenbaki = 5.175.000 pta.

GUZTIRA.....5.175.000 pta.

7.2.3. Banaketa

2.500 ale x 7 pezta aleko 17.500 pta hilero.

17.500 x 45 zenbaki 787.500 pta urtean.

Hamaikagatik biderkatu dugu abuztuan ez delako alerik izango.

GUZTIRA..... 787.500 pta.

-elgoiBARREN!-

7.2.4. Bulego gastuak

- Telefonoa: Bi hilabetero 24.000 pezta.

24.000 x 6 = 144.000 pezta.

- Argia..... 48.000 pta.

- Ordenadore gastuak:

. Inpresoraren tintarentzat..... 135.000 pta.

. Disketeak..... 15.000 pta.

. Paperak..... 14.000 pta.

- Bulegoko materiala..... 18.000 pezta.

GUZTIRA..... 374.000 pta.

7.2.5. Argazki gastuak

- Karreteak, errebelatua, argazkilaria: 175.000 pezta.

GUZTIRA..... 175.000 pta

-elgoiBARREN!-

7.2.6. Urteko aurrekontu osoa

AURREKONTU OSOA

1. PERTSONAL GASTUAK.....	9.128.499	pezta.
2. INPRENTA.....	5.175.000	pezta.
3. BANAKETA.....	787.500	pezta.
4. BULEGOA.....	374.000	pezta.
5. ARGAZKIAK.....	175.000	pezta.
6. EKIMANDUAREN AMORTIZAZIOA.....	500.000	pezta.

GUZTIRA.....	16.140.000	pezta.

7.3. FINANTZIAKETA

Publizitatea diru iturri garrantzitsua izan arren, ez da nahikoa, prentsa lokalean bederen, aldizkaria osoki finantziatzeko. Hiriguneetan badira publizitateaz soilik finantziatzen diren aldizkariak: "Hementxe" (Andoain), "Orain" (Irun), "Diario Metropolitano" (Bilbo), "El Social" (Basauri) eta "Ribera Navarra" (Tutera) esaterako.

Bost aldizkari hauek zabalkunde eremu handikoak dira, 4.000 aletik gora guztiak. Datu hau, noski, oso interesgarria da merkatarientzat, egingo duten publizitatea errentagarria dela ziurtatzen bait du tirada handi honek. Halabaina, era honetako Euskarazko aldizkaririk ez dugu aurkituko. Euskara, oraingoz, ez bait da errentagarria merkatal etxeentzat.

elgoiBARREN bezalako herri aldizkari bat Euskara hutsez atera nahi bada, ezinbesteko bihurtzen da publizitateaz gain beste diru iturri batzuk izatea. Azken urteotan Euskal Herri osoan sortzen ari diren euskal aldizkariari begiradatxo bat botatzen badiegu garbi ikusiko dugu aldizkari hauen finantziabidea bi zutabetan oinarritzen dela:

- Dirulaguntza publiko eta pribatua.

- Publizitatea.

-elgoiBARREN!-

Lehenengo diru iturritik langileak ordaintzeko beste lortzen dute eta publizitateak, berriz, inprimategi eta bulego gastuak.

7.3.1. Publizitatearen azterketa

Hona hemen moduloen prezioak:

- Zuri beltzeko iragarkien prezioak

LEHEN ORRIALDEA

. Hiru modulu.....25.000 pta.

BARRUKO ORRIALDEETAN

. Modulu bat.....2.000 pta.

. Orrialde erdia (9 modulu).....15.000 pta.

. Orrialde osoa (18 modulu).....30.000 pta.

AZKEN ORRIALDEA

. Orrialde erdia (9 modulu).....32.000 pta.

. Orrialde osoa (18 modulu).....38.000 pta.

-elgoiBARREN!-

- koloretako iragarkien prezioak

LEHEN ORRIALDEA

. Hiru modulu.....40.000 pta.

BARRUKO ORRIALDEETAN

. Orrialde osoa (18 modulu).....50.000 pta.

AZKEN ORRIALDEA

.Orrialde osoa (18 modulu).....55.000 pta.

Modulo bakoitzaren bataz besteko prezioa 2.000 peztakoa dela kontutan izanik, zenbaki bakoitzean aldizkariaren % 30 osatzen duten 120 moduloak lortuz gero, 240.000 pezta sartuko dira publizitateetik. Jo dezagun iragarki kopuru horren % 80 lortzen dugula: 192.000 pezta lirateke zenbakiko.

192.000 pta. x 45 zenbaki = 8.640.000 pta.

PUBLIZITATEARI DAGOKION DIRU SARRERA : 8.640.000 Pta.

7.3.2. Dirulaguntzak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egunerokoak ez diren Euskarazko aldizkariei ematen dien dirulaguntzak aztertuko ditugu ondoren. Horretarako aurtan dirulaguntzak nola banatu diren aztertuko dugu:

ALDIZKARIA	ARGITARATZAILEA	DIRULAGUNTZA
AKATZ	Ikuspegi Kultur Taldea	3.500.000,-
ARETXAGAZETA	Aretxagazeta Kultur Taldea	396.000,-
ARRANONDO	Arranondo Kultur Elkartea	4.000.000,-
ARRASATE PRESS	Arrasate Komunikabideak	3.000.000,-
AZPEITIAN ZER	Azpeitiko Udala	1.150.000,-
BERRIGARA	Jardun Kultur Elkartea	1.494.000,-
DEIADAR	Gernikako Udala (K. Fundaz.)	4.000.000,-
DURANGO SWING	Zapu-Herri Kultur Elkartea	2.800.000,-
ENE BADA!	Hots Taldea	621.000,-
...ETA KITTO!!	...Eta Kitto!! Euskara Elk.	1.471.000,-
GOIERRITARRA	Goierritarrak Taldea	1.274.000,-
KARKARA	Karkara Taldea	218.000,-
KONTZEJUPETIK	Oñatiko Udala	1.252.000,-
NONTZEBARRI	Mungia Euskaldunduz Elk.	1.232.000,-
SANTA MARIÑE	Urdulizko Euskara Taldea	505.000,-

Taula honetan "...eta kitto!!" eta "Berrigara" dira gure proiektuarekin antzekotasun handienak dituztenak. Beraiei eman zaizkien dirulaguntzak kontutan izanik eta zenbaki bat botatzearren, 1.500.000 pta espero daitezke Eusko Jaurlaritzatik.

-elgoiBARREN!-

Bestalde, Foru Aldundiak euskararen alde egingo diren ekimenak bultzatzeko dirulaguntzak iragarri ditu aurten. Txosten hau bukatutzat emateko orduan, oraindik ez daukagu baldintzen nondik norakorik.

7.4. BALANTZEA

DIRU IRTEERAK		DIRU SARRERAK	
PERTSONAL GAST..	9.128.499	PUBLIZITATEA.....	8.640.000
INPRENTA.....	5.175.000	EUSKO JAURLARITZA..	1.500.000
BANAKETA.....	787.500	FORU ALDUNDIA.....	1.000.000
BULEGOA.....	374.000	UDALETXEA.....	5.000.000
ARGAZKIAK.....	175.000		
EKIP. AMORTIZA..	500.000		
GUZTIRA.....	16.140.000	GUZTIRA.....	16.140.000

Balantzea ehunekotan:

DIRU IRTEERAK		DIRU SARRERAK	
PERTSONAL GAST.....	% 56.5	PUBLIZITATEA.....	% 53
INPRENTA.....	% 32.06	EUSKO JAURLARITZA....	% 9
BANAKETA.....	% 4.88	FORU ALDUNDIA.....	% 6
BULEGOA.....	% 2.31	UDALETXEA.....	% 31
ARGAZKIA.....	% 1.08		
EKIP. AMORTIZAZIOA..	% 3.09		
GUZTIRA.....	% 100	GUZTIRA.....	% 100

(*) Ikus 4. eranskina

-elgoiBARREN!-

8. Eranskinak

1. ERANSKINA

Euskara ezagupenaren datuak 1986ko erroldaren arabera.

	ULERTU		HITZ EGIN		IRAKURRI		IDATZI	
EZER EZ	3.531	%29	4.156	%30	5.193	%43	5.511	%45
ZERBAIT	1.627	%13	1.550	%12	1.905	%16	2.403	%20
ONGI	6.977	%57	6.429	%52	5.037	%41	4.221	%35
GUZTIRA	12.135	%100	12.135	%100	12.135	%100	12.135	%100

2. ERANSKINA

Euskararen presentzia Elgoibarko kroniketan 1991kako urtarriletik 1992ko ekaina arte.

(1. ZATIA)

1991	DIARIO	CORREO	DEIA	EGIN
URTARRILA	Batere	Batere	% 4'7	% 11
OTSAILA	% 1	Batere	% 8	% 18
MARTXOA	% 1	Batere	% 10	% 10
APIRILA	% 1	Batere	% 15	% 30
MAIATZA	Batere	Batere	% 12'5	% 20
EKAINA	% 7	Batere	% 15	% 21
UZTAILA	Batere	Batere	% 5	% 21
IRAILA	% 1	Batere	% 14	% 23
URRIA	% 7	Batere	% 6'5	% 26
AZAROA	% 3	Batere	% 6	% 31'5
ABENDUA	% 4	Batere	% 17	% 17
GUZTIRA	% 2'2	Batere	% 10	% 20'7

-elgoiBARREN!-

(2. ZATIA)

	DIARIO	CORREO	DEIA	EGIN
1992				
URTARRILA	Batere	Batere	% 1	% 5'2
OTSAILA	% 2'5	Batere	% 1	% 1'3
MARTXOA	% 2'1	Batere	% 6'3	% 8'4
APIRILA	% 1	Batere	% 1	% 9
MAIATZA	% 1'2	Batere	% 10'6	% 1'1
EKAINA	Batere	Batere	% 3	% 24'5
GUZTIRA	% 1'1	Batere	% 3'8	% 8'25

3. ERANSKINA

Euskal aldizkarien salmentak Elgoibarren azken bi urteotan.

	1991	1992
EGUNKARIA	---	55
ARGIA	55	56
JAKIN	33	30
IPURBELTZ	30	31
HABE	18	14
HABEKOMIK	14	10
UNESKO Aldizkaria	8	8
ITZULPEN SAILA	7	7
ZUTABE	12	12
AIZU !	13	7
ELHUYAR	13	11
LARRUN	1	1
SUSA	2	2

-elgoiBARREN!-

4. ERANSKINA:Taula honetan Euskal Herriko zenbait herri aldizkariren finantzibidearen berri emango dizuegu:

IZENA	ZABALKUNDE EREMUA	TIRADA ETA ORRIALDEAK		MAIZTASUNA	ERREDAKZIOA	DIRU ITURRIAK	
						Publ	Lag.
TTIPI--TTAPA (Bera)	Nafarroako Ifarraldea	4.600	32	Hamaboskaria	3	% 30	% 70
ARETXAGAZETA (Aretxabaleta)	Aretxabaleta	2.500	12	Hamaboskaria	6	% 30	% 70
ARRASATE-PRESS (Arrasate)	Arrasate	5.800	36	Astekaria	4	% 65	% 35
AIXE-BOLARI (Ondarroa)	Ondarroa	1.200	32	Bi hilabetero	8	% 5	% 95
GOIERRITARRA (Ordizia)	Goierri Bailara	1.500	32	Hilabetekaria	2	% 60	% 40
ENE-BADA ! (Legazpia)	Legazpia	2.200	16	Astekaria	5/6	% 40	% 60
DEIADAR (Gernika-Lumo)	Gernika + 16 herri	5.000	16/20	Hamaboskaria	5	% 10	% 90
BERRIGARA (Bergara)	Bergara	3.000	20	Astekaria	2	% 60	% 40
GALTZAUNDI (Tolosa)	Tolosaldea	5.000	20	Hilabetekaria	9	% 90	% 10

PROIEKTUAREN ARDURADUNAK:

Jasone Osoro
Maite Rementeria

AHOLKULARIAK:

Alberto Agirreazaldeg
Montse Arregi
Garbiñe Osoro
Mari Tere Arakistain
Agurtzane Garzia
Jon Zabala

BABESLEA:

"ELGOIBARKO IZARRA" Kultur Elkartea